
BEOTIBAR (1.º SARIA)

Milla urte igarota, ura bere bidean.
Beotibar'ko zelaian anaiak burrukan.
Akelerre'ko landan sorgiñak dantzan.

Sapatu gaua da...
Euskalerra'ko sorgiñak,
laiño guztien azpitik, sasi guztien ganetik,
egaz, ijiji! eta ajaja!
Zugarramurdi'ko arpera doaz.

Batzarra asi da...
Aker Baltza, sorginen erdian zutunik,
adar oker, bizar muker,
trumoi lango abots lodiaz, asi da esaten:

"Sorgin jaun-andreok:
Ongi etorriak, danok Akelarre'ko batzar onetara...
Erne belarriak eta entzun ondo!
Eginbear andi bat daukat gaur zuoi emoteko...
Sakabanatu zaitzeze arin Euskalerra'ko lau mugetara.
Atera aizeak euren gordelekuetatik,
jo trumoiak, biztu tximistak,
alkar amorratu zero-lurrak,
ez inon eta inori bakean itxi.
Eta zu, Bekaitz, sorgin-andra nagusi ori,
zoaz Naparroa'ko agintari Morentain jaunarengana,
eta egiak guzurraikin nasturik,
gipuzkoarren aurka, aren burua egizu zoratu,
begiak itsutu, biotza amorratu, asarreak biztu.

Saguzar egoaz jantzita,
irribarre gaiztoa ezpanetan,
egaz, illargiaren argitan,
ba-doa Bekaitz sorgin andra gaizkillea,
sasi guztien ganetik, laiño guztien azpitik,
lo dagoan Naparroa'ko Morentain jaunarengana,
eta zapo itxurak arturik,
aren oe-buruko azpian ezkututzen da,
eta, klik-klok!, zapo zikin nazkagarriak,
belarrira diñotso:

"Lo zagoz, Naparroa'ko jaun andi ori?
Gipuzkoarrak ez dagoz, bada lo...
Azpikeriaz Gorriti'ko gazteluaz dira jabetu,
baserriak erre eta kizkaldu,
beiak eta ardiak lapurtu,
dana ondatu, apurtu eta txikitu...
Eta lotan zu?

Negu gorrian, mendi ganetan,
trumoi orroaka asten danean,
laiño lodiak euria zaparradan,
goien-beian asten dira botaten,
soloak, baserriak, abereak eta gizakiak ondatzen...
Alan naparrak Lekunberri'tik aurrera datoz,
ezpata eta lantzak eskuetan,
gorrotoa biotzetan, odola bero-bero zanetan,
gipuzkoarrei merezi daben ordaina emoteko asmotan...
Iñogaz eta ezegaz erruki barik, dana ondatu dabe,
baserriei sua emon, eta Berastegi'ko erria erre...
Eta or doaz aurrera, Tolosa erretzera...

Beotibar'ko zelaian giputzak itxaroten,
napar gudamutilliei aurrera bideak ixten.
Larre'ko Oñaz dabe nagusi,
zortzireun armagizonen buruzagi.

Asi da burruka...
Naparrak eta gipuzkoarrak alkarren aurka,
gorroto bizian,
txakur amorratuen antzean, otso gosetuen legean,
ezpataka, lantzaka, aginka, ostikoka,
alkarri erasoten, zauritzen, anaiak anaia ilten...

Eta zergatik?
Iñok ez daki...
Aker Baltzak ba-daki.

Burruka bitartean,
Beotibar'ko pago adarretan,
bela baltzak millaka,
egoei pozik eraginez, kua kua! kantaka

Sorginak dira
zelaiko burrukalariei buruak berotzen,
asarreari su emoten,
euren kantu zikiñekaz, gorrotoak irakiten.

Beotibar zelaia,
euskal anaien odolaz gorritua,
betiko madarikatua...
Ez bedi zure lurtean geiago lorarik erne,
sasiz eta arantzaz bedi betiko bete,
Euskalerrriak dirauan arte.

Nora zoaz, gipuzkoarren buruzagi,
Larre ko Oñaz jauna?
Nora zoaz arro, garaipen irrintziak agoan,
Tolosa bidean?

Burruka irabazi dozula, uste dozu?
Zure izen ona eta omena, bai, betiko galdu.

Kain, Kain,
non da zuk il dozun anaia?
Poztu da Zugarramurdi'ko Akerra.
Euskalerrri'ko amak negarra.

Milla irureun eta ogeita bat urteko
irailak emeretzi,
euskaldunentzat egun negargarri, lotsagarri.
Betiko aztua bedi.

Illargiak, illen argi errukitsuak,
estaldu ditu bere magalpe ixilean ildakoen gorpuak,
zelaian sakabanatuak...
Zenbat dira?
Zer ardura?
Bat bakarra litzateke naiko,
beti negar egiteko...

Beotibar'en gaurko gauaz sorgiñak batzarra.
Zelai erdian Akerra.
Jaun Baltzaren inguruan sorgiñak,
txistu-dabolin soiñuan,
ujujuka!, bira-biraka, zoratu artean dantzan.
Dantza amaitu ondoren,
sorgiñak banan-banan,
Aker Baltzari buztanpean mosu emoten...

Sorgiñak pozik. Euskalerrriak negar.
Noz arte, euskaldunok, Aker Baltzaren menpean bizi
bear?
Anaiak anaia ilten alkar?

Euskalerrriko seme-alabok:
Beotibar'tik igarotean,
begiak itxi, suurrak estaldu,
zelai orri ustel kiratsa dario.

IÑAKI GOIKOETXEA



EGUTEGIA

Aurten be **EUSKERAZALEAK ALKAR-TEA**'k eguneroko orritxua eskiñiko dautzun Egutegia argitaratu dau, Bilbao Bizkaia Aurrezki-Kutxa'ren laguntzaz.

Urte Barrirako oparia izan bekizue doan emoten dogun egutegi au.

Eskatu egizu urren daukazun **BBK**'ren etxean edo Euskerazaleak Alkartearen etxean (Colon de Larreategi 14, 2.^a, eskoia).

ZORIONAK!!!